

2025eko irailaren 26ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Karine Perez (à partir des questions diverses) Chantal Echevertz, Kattalin Duhalde, Samuel Biscay, Koxe Barbier, Ramuntxo Oteiza, Frédéric Hernandez, Hervé Parachou, Philippe Mongabure eta Arño Gastambide

Excusés/barkatuak: Virginie Sabaloue, Sabine Auge, Chantal Echevertz, Patrick Barneche

Gaurko kontseilua hasi da Xalbat DUHALDE zorionduz, Esku Huskako munduko txapelketa irabazi baitu - **Aupa Xalbat!!**

1. Aurrekontu nagusiari buruzko 1. aldaketa erabakia

INBESTIMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
10226 (10): Antolamendu zerga	9 500,00		
2315 (23) – 182 : Instalazioak, materiala	-9 500,00		
	0,00		

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
615221 (011): Eraikin publikoak	-0,60	002 (002): Funtzionamendu-soberakina:	-0,60
7391112 (014): zerga arintzea Bizitegi hutsen gaineko bizitegi-zerga	3 149,00	73111(731): Tokiko zerga zuzenak	3 149,00
	3 148,40		3 148,40

Gastuak orotara	3 148.40	Irabaziak orotara	3 148.40
------------------------	-----------------	--------------------------	-----------------

Kontseiluak onartu du

2. Ipar Euskal Herriko LTEPrekin hitzarmena – “B1419 Herri barnearen” funts-eramatea

2023ko urriaren 26ko 16. deliberoaren bidez, Ipar Euskal Herriko LTEPko Administrazio Kontseiluak erabaki zuen:

- Pirinio Atlantikoetako desjabetzearen andere epaileak 2024ko abenduaren 6an eman 24/27. epaia kontuan hartzea. Epaia horren bidez, 218.508,50 €-ko zenbatekoa finkatu zen, eta Ipar Euskal Herriko LTEP kondenatu kostu guzien ordaintzera, bai eta jabeari 1.200,00 €-ko zenbatekoa ordaintzera ere, Prozedura Zibilarren Kodearen 700. artikuluan oinarriturik.

Eskuratze horren kariatara, eramate-hitzarmen bat behar da finkatu Ipar Euskal Herriko LTEPren eta Aiherrako Herriko Etxearen artean erosi ontasunaren eramate, kudeaketa eta gibelera saltze moldeak berresteko.

Ikusirik Herriko Etxearen xedeak eta esku hartze testuingurua, proposatu da 12 urteko eramatea aplikatzea urte sari bakoitz % 2,5 (BEZa gabe) eramate-gastuak aplikatuz ordaintzekoa den kapitalean.

LTEPrekin hitzarmena izenpetzeko baimen galdea.

Kontseiluak onartu du hitzarmen horren izenpetzea

3. CARRICABURU-GUILLEMIN lursailen trukaketa + Mendiburuborda baserri-bidearen parte baten besterentzea

Mendiburuborda 427. baserri-bidearen parte bat ez da aspaldi honetan gehiago erabilia eta Michel CARRICABURU jaunaren eta Vanessa GUILLEMIN anderearen lurak zeharkatzen ditu; hauek eskuratzea galdegin dute.

Kentzea eta besterentzea proposatu da jabe-egoiliarren faboretan, inkesta publikoa egin ondoan.

(Mendiburubordako baserri-bidea kentzeko eta besterentzeko inkesta publikoa bukatua izanen delarik, beste erabaki bat hartuko da, trukaketak ontzat emateko).

- Michel CARRICABURU jaunak eta Vanessa GUILLEMIN andereak herriari eman diote:
 - o kadastrako D 248 lursailaren zati bat, 438 m² inguruko azalera duena, "Izturitzetik Bastidara" doan baserri-bidean integratuko dena;
 - o kadastrako D 400 lursailaren zati bat 2 510 m² inguruko azalera duena.
- Herriak eman die Michel CARRICABURU jaunari eta Vanessa GUILLEMIN andereari:
 - o kadastrako D 230 lursailaren zati bat 31 m² inguruko azalera duena.
 - o kadastrako D 249 lursailaren zati bat 2 615 m² inguruko azalera duena.
 - o Mendiburuborda deitu lehengo baserri-bidearen zati bat, 664 m² inguruko azalera duena.

Kontseiluak onartu du inkesta publikoa abiatzea

4. Antoneneko herri bidearen erregulartzea

2024ko urriaren 8an, Antoneneko bidea izeneko herri bidearen zati bat erregularizatzeko erabakia hartu zen. Horretarako, 136 m²-ko azalerako bazterra erosi zitzaion, 0,15 €/m²-ko prezioan SCI SAGARDEAko ordezkari den Philippe MARTINON jaunari, eta 285 m²-ko azalera, 0.15 €/m²-ko prezioan Bittori eta Anne-Marie MARTINON andereei.

Horrez gain, kadastrako A 1327 lursaila erosi behar liteke, 88 m²-koa, 0,15 €/m²-ko prezioan Amets ELOSEGI MARTINON jaunari, kadastrako A 1326 lursaila, 93 m²-koa, 0,15 €/m²-ko prezioan Marie-Thérèse MARTINON andereari; kadastrako A 1388 lursaila, 114 m²-koa, eta kadastrako A 1386 lursaila, 78 m²-koa, Bittori MARTINON andereari, 0.15 €/m²-ko prezioan.

Proposatu da lursail horiek guztiak jabetza publikoan sailkatzea. Kontseiluak onartu du

5. Estatutu asurantzari kidetzea

Elkargo publikoek estatutu-betebeharrak dituzte CNRACLren kide diren funtzionarioen eta Gizarte Asurantzako araubidearen mendearen diren langileen geriza sozialari begira.

Arrisku horien kontrako bermea hartzeko, elkargoek asurantza kontratu bat har dezakete.

Kudeaketa zentroak konkurrentziarako deialdia egin du arriskuak batzen dituen talde kontratu baten

ukaiteko.

Kudeaketa zentroak, Eskaera Publikoaren Kodearen arabera prozedura plantan ezarri ondoan, CNP Asurantz hartzea erabaki du asurantz etxe gisa eta **RELYENS** kudeatzaile artekari gisa.

Bi kontratu proposatu dira:

- **CNRACLren mendean diren funtzionarioei** doakien kontratua:

Asurantz tasa % **7,40ekoa** da eta **berme guziak** barne ditu:

Heriotza + Zerbitzu istripua eta eritasun profesionala (CITIS) + Eritasun luzea eta iraupen luzekoa + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta haurraren errezibitzea + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz + Gerla elbarritasuna.

Langileei ordaindu eguneroko ordainsarien ordainketa-maila % **90ekoa** izanen da.

- **Gizarte Segurantzako araubideak** eta **IRCANTECek** estali langileendako kontratua:

Asurantz tasa % **0,96koa** da eta berme guziak barne ditu:

Lan istripua eta eritasun profesionala + Eritasun larria + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta haurraren errezibitzea + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz eritasun arruntaren kasuan bakarrik

Proposatu da 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte CNPk RELYENS artekariaren bidez eskaintzen dituen asurantz-kontratuei kidetzea. Kontseiluak onartu du

6. Ipar Euskal Herriko Obra Sozialen Batzordeari esleitu dirulaguntzak 2025erako

2021eko otsailaren 5ean sortu Ipar Euskal Herriko Obra Sozialen Batzordeak bere kideentzat elkartasun, zuzentasun, berdintasun eta belaunaldien arteko printzipioetan bermatu laguntza sozial eta jarduera mota oro finkatzea du helburu.

Hauek ditu helburu nagusiak:

- Langileen eta haien familien bizi-baldintzak hobetzea, bereziki haurtzaroaren, aisialdien, kirol-aktibitateen eta oporren arloan;
- Langileak motibatzea eta balorizatzea baldintza erakargarriak sortuz eta haien loratzean parte hartuz.

2024ko abenduaren 6an Herriko Kontseiluak erabaki zuen laguntza materiala eta ekonomikoa ematea Obra Sozialen Batzordeari eta 2025-2026ko hitzarmen oinarri-emaelearen hitzak onartu ditu.

Hitzarmen horrek zehazten du herriak Obra Sozialen Batzordeari urteko funtzionamendu-dirulaguntza emanen diola, eta zenbatekoa gutienez N-1 urteko abenduaren 31ko indize gordinaren tratamendu osoaren % 1.15ekoa dela.

2025-2026ko hitzarmen oinarri-emaelearen 1. gehigarriaren aurkezpena; horrek Aiherrako herriaren dirulaguntzaren zenbatekoa 1 251,34 €-tan finkatzen du 2025. urterako.

Gehigarriaren izenpetzeko baimena galdatu da. Kontseiluak onartu du

7. Fibre 64 enpresaren erosketa taldeari kidetzea

2023ko martxoaren 16ko deliberoaren bidez, La Fibre64 Sindikatu Mistoak erabaki du erosketa zerbitzu zentralizatu bat eskaintzea hala nahi duten erosleei, "Erosketa taldea" ere deitua, Eskaera Publikoaren Kodearen L. 1210-1 artikulua eta ondoko arabera erosle izaera dutenei eta egoitza soziala Pirinio Atlantikoetako departamenduan dutenei.

Organo juridiko horri esker hobeki ihardetsi daiteke erosketa prozesua sinplifikatzeko, segurtasun juridikoa emateko, gastuak optimizatzeko, lurralde-kolektibitatei eta erakunde publikoei aterabide desmaterializatueta sarbidea errazteko eta numerikoa sustatzeko erronkei.

Herria libre da Erosketa Talde horri dei egiteko edo ez dei egiteko, ukanen dituen behar guzietarako edo batzuetarako.

Hitzarmen bat sinatuz gero, herriak La Fibre64 Sindikatu Mistoak (Erosketa talde gisa) proposatu erosketa zerbitzu zentralizatuak erabiltzeko parada ukanen luke.

La Fibre64 sindikatuak gure kolektibitatearen obra eta zerbitzu beharrei edota arlo numerikoko eta komunikazio elektronikoko hornidura beharrei erantzun nahi die.

Horra zer diren zerbitzu horiek:

- Zerbitzu, material eta aterabide numerikoen hornitzea;
- Obragintzarako laguntza eginkizunak.

La Fibre64 sindikatuaren erosketa taldeari kidetzea proposatu da: 100€ BEZa gabe/urtean. Kontseiluak onartu du

8. "Cyber64 erredolaren" hedapenari dagokion hitzarmenaren 1. gehigarria

2022an apailatu eta 2023ko urtarrilaz geroztik hedatu "Cyber64 Erredola" tresnak bere balioa erakutsi du Pirinio Atlantikoetako 335 herri eta 6 herri elkargok Frantziako eta Europako zibersegurtasun zerbitzu eta tresna multzo bat ukaiteko parada ukan baitute, deus ordaindu gabe: antispama, antibirusa, pasahitz-kudeatzailea, datuen babeskopia segurua hodei subirano batean.

Oharra: 2023ko abenduaren 11n Herriko Kontseiluak erabaki zuen herria Fibre64-k proposatu zibersegurtasun desmartxan sartzeara.

ANSSI %70eraino eta Fibre64k %30eraino finantzatua 3 urterako, "Cyber64 Erredola" 2025eko abenduaren 31n bukatuko da.

Proposatu da 1. gehigarria sinatzea "Cyber64 Erredola" tresnaren hedapenari buruzko hastapeneko hitzarmenaren iraupena luzatzeko; hitzarmen berria **2028ko abenduaren 31n** bururatuko da berantenez. Kontseiluak onartu du

Cyber64 erredola kitorik da hitzarmena indarrean den denbora guzian, eta ez du **2028ko abenduaren 31** iragaten ahalko.

9. Haranburuko bideko "Xista" zubiaren berritzea – Finantzamendu plan berria

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio erabaki bat hartu dela 2025eko ekainaren 6an "Xista" zubiaren berritzeko finantzamendu plana onartzeko. Estimatu zen obrek 63 950 € (BEZa gabe) kostako dutela; 2/3ak Aiherrako herriak ditu ordainduko eta 1/3 Hazparneko herriak.

Kontsulta bat antolatu da prozedura egokiaren arabera, berritze obrak eginen dituzten enpresak hautatzeko. Lehian ezarri ondoan aurrekontu bat galdegin zaie hiru enpresari.

Eskaintzak ikertu ondoan, proposatu da merkatua esleitzea DIBARGINTZA / DUHALDE enpresa-taldeari: 106 142,50 euro (BEZa gabe).

Aurreikusi finantzamendu plan berria:

Gastu motak	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Irabaziak	Zenbatekoa
Obrak			
- Tarte finkoa	65 794,00 €	ZPN "Obrak" (% 60)	50 570,00 €
- Hautuzko tarteak	6 730,00 €	Departamendu Kontseilua	10 000,00 €
Ikerketak	5 250,00 €		
AUIBEO	2 600,00 €	<i>Dirulaguntza guziak</i>	<i>60 570,00 €</i>
Arriskugarritasunak (% 5)	3 910 €	Diru propioa	23 714,00 €
OROTARA	84 284,00 €	OROTARA	84 284,00 €

Kontseiluak merkatua eta finantzamendu plana onartu ditu

Gai orotarik

Herriaren zeharkatzea: herritarrek plana Herriko Etxean ikus dezakete; Departamendu Kontseiluak (operazioaren obralarietarik bat) behar du dokumentua ontzat eman.

Plan horiei dagokien lehenbiziko estimazioa 460 000 €-koa (BEZa gabe) litzateke, eta 25 000 €-koa ikerketetarako. Departamenduak bere gain hartuko duela estimatzen da (bakarrik 170 000 €-ko aurreikuspena), beste finantzamendu posibilitaterik gabe. Finantzamendu plan finkoa berantago bozkatuko da.

Lursaila mailegatzeko kontratua Gérard Soulignaci. Hardoiaren fruitu baratze parterako da kontratua, fruitu arbolak landa ditzan. Kontratua kitorik eginen da, fruitu baratzeako arbolak artatzearen truk.

Elizako obrak: orain Frantziako eraikinen gomendioak ezagutuak dira. Aurrekontuak eguneratu dituzte eta dirulaguntza galdea urte hondarrean eginen da, iduriz 2025eko kredituak agortuak baitira. Finantzamendu plan zehatzagoa proposatuko da ondoko kontseiluan.

Antzuolako eguna: oroitarazteko, urriaren 18an iraganen da: Aiherrako bi garagarnogileengana joanen gara eta Gozategian bazkalduko. Otoi, izena eman Herriko Etxean.

Gozategia: hilabete anitzetako prozeduraren eta estimatzeren ondotik (2022. urte hondarraz geroztik), lauzen irazgaiztasunari buruzko arazoa konpondu behar lukete asurantz. Obrak behar dira programatu, adituak jadanik enpresa bat aurreikusia du.

Beltzagitea: Batzuek uko egin ondoan, bada oraino gela bat alokatzeko, bereziki paramedikuntzako jarduerak baterako (21 m², alokairua: 400 € BEZa barne).

Biztanle kontaketa: 2 biztanle kontatzaile xerkatzen ditugu 2026. urte hastapeneko. Argibide guzien ukaiteko, sar zaitez harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin eta kandidatura igor e-postaz edo postaz.

Edukiontzien plantan ezartzea: alde bateko lekuen finkatzen ari dira. Urri hastapenean xehetasun gehiago behar genuke, bai obrei buruz bai argibide bilkurari buruz.

2025eko Téléthou abenduaren 5ean ala 6an... Antolatzaileek berriz ere dei egin digute, boluntarioak behar ditugu eta ideiak ere bai, hitzordu horren bermatzeko. Mus txapelketa bat Gozategian?

3. adinekoen apairua: Lasako Etxoinia ostatuan antolatzekoa da, gure herrian sortu herritar batek baitu atxikitzen. Data jatetxearekin eta 3. adinekoen Goiti Aire elkartearekin finkatuko da.

Aldizkariaren banaketa ondoko astean.

Bilkura 21:00ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide